



**1147/2022 EBAZPENA, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Ospitaleko Pediatria Osasun Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.**

## AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen urriaren 25eko 1317/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa bat egin zen Donostialdeko ESiko Ospitaleko Pediatria Osasun Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urtarrilaren 19ko EHAA 12 zk. eta 2022ko urtarrilaren 26ko BOEn 22 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioudunek epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko otsailaren 16an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 22ko 136/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horrek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertzeiko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ospitaleko Pediatria Osasun Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. Eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko maiatzaren 4an

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.  
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,  
**ESTHER LITAGO SOLA.**

  
DONOSTIALDEA ESI  
OSI DONOSTIALDEA  
LANGILEEN ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN DE PERSONAS

## I. ERANSKINA

### DONOSTIALDEKO ESIKO OSPITALEKO PEDIATRIA OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIAN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Beatriz RONCANDIO CILVETI

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

## II. ERANSKINA

### DONOSTIALDEKO ESIKO OSPITALEKO PEDIATRIA OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA

#### BALORAZIO BATZORDEA

##### Batzordeburua

Titularra: Miren Idoia GURRUCHAGA ARRIOLA and.

Ordezkoa: Ana CALVO AGUIRRE and.

##### Lehenengo batzordekidea

Titularra: Maria Teresa MARTINEZ ZABALETA and.

Ordezkoa: Adolfo BEGUIRISTAIN GOMEZ jn.

##### Bigarren batzordekidea

Titularra: Cristina CALVO MONGE and.

Ordezkoa: Miguel Angel CORTAJARENA ALTUNA jn..

##### Hirugarren batzordekidea

Titularra: Itziar ASTIGARRAGA AGUIRRE and.

Ordezkoa: Javier CALZADA BARRENA jn.

##### Laugarren batzordekidea

Titularra: Miren Aintzane EUBA LOPEZ and.

Ordezkoa: Miguel Angel VAZQUEZ RONCO

##### Idazkaria

Titularra: Esther LITAGO SOLA and.

Ordezkoa : Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.